

Proposamenak

Gure jokaera aldatzera konprometitzen garen bezala, herri mailan ikusi ditugun arazoak konpontzeko Udalarri hurrengo eskaerak luzatzen dizkiogu:

- 1.- Zigor auzotik frontoi aldera hartzen dugun zebrabidean, askotan, auto bat aparkatuta egoten da, Oinezko Trenaren martxa galaraziz.
- 2.- Aurreko toki bertsuan, pibote batek traba egiten du, eta garai bateko bordillo bat alferrik dago, eta enbarazuan.
- 3.- Plaza parean, galtzadan egin berri den obretan ez dago nahikoa informazio, eta dagoena, ez da oso argia (Nork du lehentasuna? Autoak? Oinezkoak?). Halaber, obra arkupe pareraino iritsi beharko litzatekeelakoan gaude.
- 4.- Plaza pareko espaloian kokatuta dagoen oliontziak traba handia egiten du.
- 5.- Sindikatua pasatu eta pasealekua bukatzen den horretan, auto bat gaizki aparkatuta egoten da, Oinezkoen Trenaren martxa trabatuz.
- 6.- Eskola inguruan umeen eta eskolaren presentziaz ohartaraziko gaituzten seinaleak jarri behar dira.
- 7.- Auto gidariak gure kaleetan polikiago sartu behar dira, ongi aparkatzen ikasi behar dute, eta normak eta arauak errespetatzen.



OINEZKOEN TRENA

*Txu! Txu!
Triki-Traka,
Triki-Traka.*

Txu! Txu!

*Ama! Trena da! Trena!
Bazoazela, Jon! Sartu bagoira!*

*Triki-Traka,
Triki-Traka.*

*Iufiiii! Trenean oinez goaz!
Zer ondo, Ainhoa! Egin trenari tira!*

Txu! Txu!

*Jo! Oinezkoen trenean etorri dira eskolara...
Lasai, Naia. Bihar zu ere ebiliko zara.*

-Maidar Agirre-


IDIAZABAL

Eskolako Agenda 21

2008 - 2009 IKASTURTEA



GOAZEN OINEZ ESKOLARA!



Gaur, hemen, Idiazabalgo ikastetxeko ordezkariak bildu gara, Eskolako Agenda 21 programan egindako lana Udal honetako ordezkariari aurkezteko.

Dakizuenetz, proiektu honetan ikastetxeko 187 ikasleok, gure irakasle, guraso eta orokorrean eskola komunitate guztiak hartzen dugu parte eta horien guztien izenean gatoz hemen bildu garen ikasleak.

Ikasturte honetan Goierriko 13 herri ezberdinetan **MUGIKORTASUNA**ren diagnostikoa landu dugu, bakoitzak bizi duen errealitatetik; hasi etxetik, eskolan, nahiz kalean. Eta hau da Idiazabalen egindako lanaren emaitza.

Gure herria aurrez ere mugikortasunaren inguruan lanean ari zenez, diagnostiko bat eta diagnostikoan aurkitutako arazoei aurre nola egin pentsatzen aritu beharra, dagoeneko abian genuen "Oinezkoen trena"-ri jarraipena eman eta hobetuz joatea izan da gure helburua.

Lehena

200, 300, 500, 700...metro. Nahiz eta distantziak oso laburrak izan, eta ikasle gehienok etxetik eskolarako, eta eskolatik etxerako joan-etorriak oinez burutu, asko ginen eskolako atariraino autoz hurbiltzen ginenak.

Batzuetan poliki, gehienetan presaka, zalapartaka... Autobusari aparkatzen eta maniobratzen uzten ez zioten auto asko pilotzen ziren eskola sarreran, sekulako kaosa sortuz: oihuak, urduritasuna, arriskua... Bi hitzetan: egoera jasanezina.

Aurreko egoera aldatzeko zenbait neurri hartu genituen:

- **Gero etxetara bidaltzeko argazkiak atera.**
- **Idatziak, galdeketak, kartelak, isun sinbolikoak prestatu.**
- **Autoei atarirako sarrera itxi eta gune hori jolastoki bihurtu...**

Eta guzti honekin egoera aldatzen zela eta Oinezkoen Trenarenean pentsatzen hasi ginen.

Horrela orain dela 2 ikasturte Oinezkoen Trenari hasiera eman genion. Hasieran aste bateko froga egin eta berri ere idatziak, guraso bilerak, kartelak eta muralak landu genituen, eta nola ez, ikasleok ikasgeletan gaia asko landu genuen.



Orain...

Ekimena arrakastatsua eta polita izan zen, eta, iraun zuen bitartean, eskola inguruko egoera hobetu egin zen. 2008-2009ko ikasturte hasieran, gure proiektuak, Oinezkoen Trenak, eguneroko martxa hartu zuen.

Aldi berean,

- Logo-lelo lehiaketa antolatu dugu,
- Idazketa (olerki, bertso, ipuin eta marrazki) tailerrak martxan jarri ditugu inguruko hainbat idazle, olerkari eta bertsolarien laguntzarekin.
- Kanpora begira mural ibiltari bat landu da
- Geletan aiton-amonak izan dira solasean
- Gurasoei begira, umeen mediku-pediatra ekarri dugu.
- Motxila bat ere badaramagu identitate-ikur modura.
- Egun batean Oinezkoen Trenak egiten duen ibilbide berbera egitera komunitate osoa (ikasle, irakasle eta guraso asko) irten ginen.

Ttapi-ttapa, ttapi-ttapa, geltokiz geltoki eta poliki-poliki, bidea egiten ari gara. Gaur egun 80 bat ikasle, 6 bat guraso, aiton-amonak eta bizpahiru irakasleren presentziarekin, ilusioz beteta gabiltza, aurrera egiteko behar adinako indarrarekin.


Eguneroko hainbat ohitura txar aldatzeko eta baloreetan hezteko oso baliagarria dela uste dugu. Izan ere, mugikortasun iraunkorraren, herrigune lasaiago, bizigarriago eta zoriontsuagoren alde lan egiten ari gara. Gainera, ikasleok gure kabuz ibiltzen ikasten ari gara; eskolara lagunartean, pozik etortzen gara, kontu-kontari, esnatuago, ariketa fisikoa eginez.



Geroa...



Aurrerantzean ere, orain arte bezala, lanean jarraituko dugu, nola Tokiko Agenda 21en parte hartuz, hala Udalarekin elkarlanean; eskolarako joan-etorriak egoki gauzatzeaz ahaztu gabe, jakina!. Denon artean, egungo **Goazen Oinez Eskolara!** leloa herriko beste esparru-eremuetara zabaltzen saiatuko gara, Goazen Oinez Zeelako polikiroldegira, Arizkorretako futbol-zelaira, erosketak egitera, Ampora, Jasora...aldarri eginez.



Konpromezuak

Proiektu honetan sinesten dugulako gu hurrengo konpromezuak betetzeko prest gaude:

- 1.- Etxetik eskolara eta eskolatik etxerako joan-etorriak oinez egingo ditugu.
- 2.- Oinez gabiltzanean espaloitik ibiliko gara.
- 3.- Galtzada zebrabidetik gurutzatuko dugu, aurrez bi aldeetara ongi begiratuta.
- 4.- Espaloietan ez gara futbolean, pilotan... jolastuko.
- 5.- Txirinduan goazenean kaskoa eramango dugu.
- 6.- Debekatutako lekuetan (espaloian, Txomenane parkean, Pilareneako parkean...) ez gara txirinduan ibiliko.
- 7.- Autoan, atzealdeko eserleketan eserita eta uhala jantzita etorriko gara..
- 8.- Etxekoak autoa gutxiago erabiltzera animatuko ditut.
- 9.- Distantzia laburra egiteko autoa erabiltzen duen ikaskide oinez etortzera animatuko dut.

